

ERABAKIA, UNIVERSIDAD DEL PAÍS VASCO/EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEAREN IRAKASLE ETA IKERTZAILEEN ERREKTOREORDEARENA, 2020ko UZTAILAREN 29koa, UPV/EHUko IRAKASLEAK ORDEZTEKO EGUNGO LAN POLTSEN INDARRALDIA LUZATZEN DUENA.

AURREKARIAK

Lehenengoa. - 2020ko martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuak erabakitako alarma egoeraren deklarazioak, bai eta ondoz ondoko luzapenek ere, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean definitutako sektore publikoko erakundeen prozedurak izapidetzeko epe mugak etetea eta epeak etetea agindu zuten, eta epeen zenbaketa aipatutako errege dekretuaren indarraldia agortzen den unean berrabiaraziko dela adierazi zuten, bai eta, halakorik balego, kasuan kasuko luzapenak ere.

Ondoren, maiatzaren 22ko 537/2020 Errege Dekretuaren bidez, alarma egoeraren bosgarren luzapena onartu zen, eta administrazio epeen etendura kendu zen, 2020ko ekainaren 1etik aurrerako ondorioekin.

Bigarrena. - UPV/EHUko errektorearen 2020ko ekainaren 3ko erabakiaren bidez, deialdi publikoa egin zen UPV/EHU 2020/2021 ikasturtean irakasleak ordezkatzeko beharrak estaltzeko hautagaiak poltsa berrietan sar zitezten. Eskabideak aurkezteko epea 2020ko ekainaren 24an amaitu zen, eta Errektoreordetza honek lan poltsetan sartzeko eskaera kopuru masiboa jaso du.

Hirugarrena. - Alarma egoeraren deklarazioak eragindako administrazio jarduera eteteak eta ordezkapen poltsa berrietan sartzeko deialdian aurkeztutako eskaeren kopuru handiak atzerapen handia eragin dute lan poltsa berriak integratzeko deialdian, bai eta ondoren prozesua izapidetzean ere. Hortaz, 2020-2021 ikasturtearen hasieran sailetan sor daitezkeen irakaskuntza beharrei behar bezala erantzungo zaiela bermatu ahal izateko, beharrezkoa suertatzen da indarrean dauden lan-poltsak luzatzea.

Horregatik guztiagatik, honako hau

ERABAKITZEN DUT

Lehenengoa. - Luzatzea UPV/EHUko irakasleak ordezteko egungo lan poltsen indarraldia, ebaluazio batzordeek 2020ko ekainaren 3ko erabakiaren bidez deitutako ordezte poltsa berriak ebatzi arte, gehienez ere 2021eko urtarrilaren 31ra arte. Une horretatik aurrera, ebaluazio batzordeek lan poltsak ebatzita eduki beharko dituzte.

Bigarrena. - Agintzea erabaki hau UPV/EHUren webgunean eta taula elektronikoan argitara dadila, bai eta eragindako sailei jakinaraztea ere.

Hirugarrena. - Erabaki honen aurka aukerako berraztertze errekurtsua jarri ahalko zaio errektoreari, hilabeteko epean; bestela, administrazioarekiko auzi errekurtsua zuzenean jarri ahal izango da jurisdikzio horretako Bilboko epaitegian, berori webgunean argitaratu eta hurrengo egunetik kontaktzen hasita, bi hilabeteren epean.

Leioan, 2020ko uztailaren 29an

IRAKASLE-IKERTZAILEEN ARLOKO ERREKTOREORDEA
Eskumenak eskuordetuta (Erabakia, 2013ko urtarrilaren 13koa, errektorearena,
2017/02/13ko EHAA).

Inmaculada Guerricagoitia Marina